

KONTSULTORETZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA, **EUSKAL KOSTALDEA** PRODUKTUAREN TURISMO PLAN ZUZENTZAILEA GARATZEKO


AURREKARIAK

Turismo Sailburuordetzak egindako *EAEko Turismoaren 2006-2009 Lehiakortasun Planak*, bere jarduketa-ardatza nagusien barruan, lehentasuna ematen dio turismoaren ikuspegitik gutxiegi erabilia dauden baliabideak balioztatzeari; horretarako, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udalerrietako sailekin hitzarturiko jarduketa-programa garatu nahi du.

Esparru honetan, eta Basquetour agentziaren produktu berrien arloaren jarduketa-lehentasunen arabera, Euskal Kostaldea sustatu beharreko produktua da, produktu berriak garatzeari dagokionez, garapen, enplegu eta dibertsifikazio ekonomikoaren arloan aukera berriak sortu ahal izateko. Gainera, Euskal Kostaldea marka berezizat identifikaturik dago HOR DAGO PLANA - Euskadiko Marketing Plan berrian; hortaz, sustapen komuneko politikak ez ezik, eskaintzan oinarrituriko garapen-politikak ere inplementatu beharko dira.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, **Itsasmendikoi** sozietate publikoaren bidez, legealdi honetan EAEko itsasertza garatzeko politikak sustatzeko apustu argia egin du, kostaldeko udalerrietan dibertsifikazio ekonomikoa bilatzearren eta helburu honekin izaera turistikoa daukaten proiektuak bultzatzen ari dira, agente publiko – pribatu ezberdinek sustaturiko ekintza turistikoekin koordinatu behar direnak..

Bestalde, **Udalarrantz** udalerrri-sarea (EAEko 14 arrantza-udalerririk osturiko sarea) administraziorako kontsulta-foroa izateko sortu da, eta, bertan, itsasertzean eragina



du ten politikak eztabaidatzen dira; halaber, bilgunea eta eztabaidagunea ere izan nahi du, arazo komunei soluzioa aurkitzeko; bertan, kudeaketaren arloko esperientzia zein jardun onak trukatu eta hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko baterako proiektuak sustatzen dira; gainera, aberastasuna ere sortu nahi da, arrantza-udalerrien ekonomia dibertsifikatuz, eta, horretarako baliabidetzat sustatu beharreko sektoreen artean, industria edo turismo-jarduera daude.

Gainera, beste erkidego eta herri batzuetan martxan jarritako ekimenak eta esperientziak ere aintzat hartu behar dira; horretarako, eskualde, estatu eta Europa mailako laguntza-programak erabili dira, helburua arrantza-zonak dibertsifikatzea da, arrantza jardueraren erritmoa moteldu egin baita, eta kostaldeko zonetan turismo iraunkorraren garapenerantz zuzendu dira ekintzak.

Hortaz, **une oso garrantzitsua** da baterako lan-ildo planifikatua eta eragilea egituratzeko; horrek sinergiak nahiz baliabideak lotu eta, gainera, lortu egingo ditu helburu ekonomikoak eta turismoaren arlokoak.

Une honetan Turismo Sailburuordetza EUSKAL KOSTALDEA-ri dagokionez duen helburu nagusienetariko bat, izan ere, Euskal Kostaldearen Turismo Plan Zuzentzailea sortzea da, kostalde hori turismo-helmuga integrala izateko; plan horrek Turismo Plan Estrategikoaren ikuspegitik diseinatu eta egituratu behar du **"EUSKAL KOSTALDEA"** produktua, turismo-eremu funtzionaltzat bokazio **eragilea eta integrala** izanik.

Sailburuordetzaren beste helburu batzuk honako hauek dira:

Turismo-eskaintzari dagokionez:

- Eskaintza turistikoaren antolaketa eta planifikazio iraunkorra.



- Kalitatea sustatzea, laneko oinarritzat eta elementu bereizgarritzat.
- Kostalde, arrantza, kultura eta naturako ondare-baliabideen turismo-balioa agerian jartzea.
- Kostaldeko udalerrietan enplegu berriak sor ditzaketen enpresa turistiko berriei laguntzea.

Turismo-eskariari dagokionez:


- Euskadiko turismo-jarioak banatzea eta udalerrri batzuek turismoak xurgatzeko duten gaitasuna handitzea.
- Batez besteko egonaldia handitzea eta hori urtaroen araberakoa ez izatea.
- Txangoen eta hurbileko turismoak itsasertzeko turismorako duten garrantzia baloratzea.

Kostaldean diharduten erakundeei dagokienez:

- Udalerrien, eskualdeen, lurraldeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko jarduerak koordinatzea eta planifikatzea, proiektu komunak garatzeko.
- Euskal kostaldeko udalerrien garapen turistikoan eragin dezaketen ekintza instituzionalen koordinazioa.
- Proiektuak detektatzea, lantzea eta proposatzea, Euskal Kostaldea turismo-unitate funtzionaltzat hartuta, **ikuspegi integralarekin**; proiektu horien barruko jarduketak homogeneoak eta koherenteak izatea.

LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketa honen helburua aholkularitza-enpresa bat kontratatzea da, Baldintza Teknikoen Agirian adierazten diren lanak egiteko, eta, horrela, **Euskal Kostaldeko Turismo Plan Zuzendaria** garatzeko.



IKERKETAREN GARAPENA

Plan honek hiru fasetan oinarrituriko metodologia edukiko du:


- Gaur egun dauden jardueren azterketa eta diagnostikoa
- Estrategia
- Eragiketa Plana

Plana egiteko, eragile nagusiak identifikatuko dira; horiekin, gero, harremanean jarri beharko da ikerketa egiten denean, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Ikuspuntu bateratu bat sortzeko borondate argia, euskal itsasertzeko udalerriak garatzen ari diren ekintza turistikoekin koordinatu eta partekatutakoa, estatu zein nazioarteko korrante turistikoa sortzeko gai izan dadin **Euskal Kostaldea** produktua.
- Sektorearen edota azpisektorearen errealitatearen ezagupena.
- Ideia berriak eskaintzeko gaitasuna. Etorkizuneko ikuspegi eraikitzailea eta proaktiboa.
- Jarduteko edota eragiteko gaitasuna, ikerketaren eraginpeko eremuetan.
- Azpisektorearen hobekuntzan eta etorkizunean laguntzeko eta inplikatzeko aukera eta horren aldeko jarrera.

2009-2013ko epemuga duen plana, turismo-eredua eta garatu beharreko azpiproduktuak zehazten dituena, horien helburuak eta estrategiak aintzat hartuta; plan hori gidaritzat erabili ahal izango da, inplikaturiko erakundeek urtero jarduketa-plan bat modu koordinatuan egiteko.

Planaren ezaugarri nagusiak honako hauek izango dira:



1. **Azterketa eta dianostikoa:** oraingo dokumentazioa, estrategiak eta jarduketa-ildoak biltzea, antolatzea eta aztertzea; **udalerrietan, eskualdeetan, lurraldeetan eta turismo-enpresetan betearazten ari diren edo betearaziko diren proiektuen azterketa eta balorazioa.**

2. Plan Zuzentzaileak, besteak beste, honako gai-ardatzak hartuko ditu aintzat:
 - **Itsasoko eta itsasertzeko ondarea:** kostaldearen historia berreskuratzea, horren zabalkundea egitea eta balioztatzea; itsas ondarea eta eraikuntza; industria-ondarea; teknoturismoa; arrantza - turismoa.

 - **Natura eta turismo aktiboko** jarduerak eta produktuak: parke naturalak, Done Jakue bidea, mendi-ibiliak, Flysch-aren ibilbidea, hondartza aktiboa, itsaso aktiboa, kirol-portuak, zetazeoak ikustea, ornitologia, surfa, etab.

 - **Dinamizazio**-jarduerak (azokak, merkatuak, erakusketak, ikuskizunak, etab.).

 - EUSKAL KOSTALDEA-ri lotutako **gastronomia**, hori oraingo eskaintzatik bereizten den nortasun bereziarekin. **Txakolinari** lotutako enoturismoaren garapen berezia (produktu enoturistikoa sortzea).

 - Erakarpenaren eta laguntzaren integrazioa eta ustiapena, **Bilbo** eta **Donostiako** eskaintzari dagokionez.

3. "EUSKAL KOSTALDEA 2009" Eragiketa Planaren zehaztapena. Horren barruan, 2009rako jarduketak zehaztuko dira, Euskal Kostaldeko Turismo Plan Zuzentzaileko Komunikazio Planarekin batera.

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

BASQUETOUR agentziak lanen zuzeneko ikuskapen eta zaintza iraunkorra egingo du. Horretarako, adjudikaziodunak laneko edozein prozesuren edo faseren azterketa egingo du. Adjudikaziodunak ikerketaren jarraipena egiteko bilera-egutegia finkatu beharko du, non BASQUETOUR-ek, lanaren liderrak, zehazturiko erakundeetako agenteek parte hartuko duten.

BASQUETOUR agentziak adjudikaziodunari laguntza emango dio, bere esku dagoen informazio guztia emanda; gainera, horrekin lankidetzan jardungo du, berak ez dituen informazio-iturriak lortu ahal izateko.

Lanen zuzendaritza BASQUETOUR agentziako ordezkari batek egingo du, eta horrek koordinatzaileztat eta ikuskatzaileztat jardungo du. Adjudikaturiko proposamenean egindako edozein aldaketak, gainera, BASQUETOUR agentziaren adostasuna izan behar du, eta horrek lanetako jarraibideetan aldaketak adierazi ahal izango ditu edozein unetan.

LANAREN KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA

Txostenak eta horietan jasotako datu guztiak, baita horien ondorioz sortzen direnak ere, BASQUETOURen jabetza soilkoak izango dira.

Era berean, konfidentzialak izango dira, eta ezin izango dira argitaratu, ez oso-osorik ez zatika, eta beste edozein motan ere ezin izango dira erabili, BASQUETOUR agentziak idatziz emandako berariazko eta aurretiazko baimenik gabe.

Adjudikaziodunak ezin izango du inoiz ere proiektuei buruzko adierazpen publikorik egin, baldin eta BASQUETOURen berariazko eta aurretiazko baimenik ez badu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Adjudikaziorako irizpideak, bakoitzari buruzko puntuazioarekin, ondoren adierazitakoak dira:

1. Memoria teknikoa.	40
2. Talde teknikoa	30
3. Prezioa	30

AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 2008ko irailaren 12an 12:00etan bukatzen da.

EGITEKO EPEA

Egiteko epea 6 hilabetetan amaitzen da, kontratua adjudikatzen denetik zenbatzen hasita.

ZENBATESPEN EKONOMIKOA

Ikerketaren kostua ez da 60.000,00 eurotik (BEZ kanpo) gorakoa izango. Zerbitzuak kontratatzeko oinarrizko baldintzetan ezarritakoaren arabera egingo dira ordainketak: % 30 kontratua sinatutakoan, % 40 azterketa eta diagnosiaren zirriborroa aurkeztutakoan eta % 30 amaitutakoan.

